Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Matilde Urkia Arruti

Usurbil, Gipuzkoa (1922)



Aurkibidea

Biografia



Matista-enean jaio zen, 6 anai-arrebako familian. 13 urte zituela, Paris etxera joan ziren bizitzera. Mojetan ikasi zuen Miserikordian. Bere izeba Gertrudis serora zen; eta, horrez gainera, Paris etxean dotrina eta eskola ere irakasten zituen. Matilde bera ere, izebarekin batera hasieran, gerora berari erreleboa eginez gerora, serora-lanetan aritu da eta aritzen da Usurbilgo parrokian. Makina bat lan egindakoa herritarrei begira: garai hartan berak egiten zituen hainbat eta hainbat eginkizun, gaur egun funeraria zerbitzuek betetzen dituztenak. Berak egindako lanen artean, besteak beste, hauek izan dira: kanpaiak jotzea, bataioen eta hildakoen inguruko zereginez arduratzea, eliza zaintzea, garbitzea, dotrina eta eskola irakastea...

Zintak

USU-074

- **Proiektua**: Hitza Jasoz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Taldea, Hitza Jasoz
- **Data**:
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Usurbilgo Udala

USU-076

- **Proiektua**: Hitza Jasoz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Taldea, Hitza Jasoz
- **Data**:
- **Iraupena**: 75 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Emalea**: Usurbilgo Udala

USU-077

- **Proiektua**: Hitza Jasoz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Taldea, Hitza Jasoz

- **Data**:
- **Iraupena**: 150 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Usurbilgo Udala

USU-078

- **Proiektua**: Hitza Jasoz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Taldea, Hitza Jasoz
- **Data**:
- **Iraupena**: 118 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Usurbilgo Udala

Pasarteak

1. Eskolaren funtzionamendua

- **Erref**: USU-076/003
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:05:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
2-3 urterekin mojen eskolan hasten ziren ikasten, eta 5-6 urterekin mutilak eskola nazionalera bidaltzen zituzten maisuarekin ikastera. 6-14 urteko umeak maisu bakarrarekin egoten ziren.

2. Umetako jolasen oroitzapenak

- **Erref**: USU-076/004
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:05:18. **Bukatu**: 00:06:48

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetan jolastu egiten zuten: panpinekin, etxeketan... 13 urtez gero, jolasak bukatu eta etxean laguntzen hasi behar izan zuen. Etxean egiten zituzten jolasak aipatzen ditu.

3. Mojekin izandako anekdotak

- **Erref**: USU-076/006
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:08:06. **Bukatu**: 00:10:54

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Lehen, ostegun arratsaldetan, ez zuten eskolarik izaten; baina bai, ordea, larunbatetan. Mojak frantsesak ziren eta haietako batzuk aipatzen ditu. Sor Sidoniri gertatutako anekdotak kontatzen ditu.

4. Hilean 2 pezeta ordaintzen zuten mojetara joateagatik

- **Erref**: USU-076/008
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:12:48. **Bukatu**: 00:13:49

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Hilean 2 pezeta ordaintzen zuten mojetara ikastera joateagatik; askok hori ere ezin izaten zuten ordaindu, baina inor ez zuten eskolatik bidaltzen hori ez ordaintzeagatik.

5. Igandetako planak gaztetan

- **Erref**: USU-076/009
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:13:49. **Bukatu**: 00:15:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Igandetan meza nagusira joaten ziren, arratsaldean bezperetara, eta geroago dantza egiten zuten. Irubideko erromerietara ere joan izan da Matilde, oinez.

6. Usurbilgo lehenengo autoak

- **Erref**: USU-076/010
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:15:08. **Bukatu**: 00:18:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:
Usurbilgo lehenengo kotxeak zein izan ziren aipatzen du. Behin, Orendaina meza batera joateko, kotxez joan ziren, baina atzean esertzeko beldurra zeukaten.

7. Garizumako eta Aste Santuko ohiturak

- **Erref**: USU-076/012
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:18:58. **Bukatu**: 00:21:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Garizumako egunak nolakoak izaten ziren aipatzen du: ostiralero kalbarioak, zazpi urtetik behin misio nagusiak, Ostegun Santuan sermoia, Ostiral Santuan hitzaldi nagusia... Lasa eta Aranguren izaten ziren misio nagusietako hizlariak.

8. Ilean txirikordak eta mototsak

- **Erref**: USU-076/018
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:37:17. **Bukatu**: 00:38:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:
Lehen ilean txirikordak eta mototsak eramaten zituzten, gauza dotorea baitzen.

9. Bekatxoak eta garatxoak

- **Erref**: USU-076/019
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:38:15. **Bukatu**: 00:42:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Bekatxoak gezurra esateagatik ateratzen omen ziren, eta giltza hotzarekin ukituta joaten omen ziren. Garatxoak izaten zituztenean, San Estebana joaten ziren. Iñakik garatxoak izan zituenekoa kontatzen du.

10. Hitz-motelei hitza ateratzen zien santua

- **Erref**: USU-076/021
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:43:25. **Bukatu**: 00:44:22

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
San Estebana hitz-motelak joaten ziren hitza ateratzeko. Orduko anekdota kontatzen du.

11. Gerra ostean goseak eragindako aldaketak

- **Erref**: USU-076/025
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 00:47:37. **Bukatu**: 00:51:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Garia gerra garaian egiten zen. Frontoian izaten zen gari-jotzea. Baba ere ereiten zen. Gerra ostean, janaria entregatu egin behar izaten zen. Guardia zibilek janaria ezkutatzen harrapatuz gero, kendu egiten zuten. Gose handia egon zen gerra ostean. Seboa hartzeko, errenkadan egoten ziren harategian. Esnegaina erabiltzen zuten grasa pixka bat izateko.

12. Gose garaian, janaria opari baliotsuena

- **Erref**: USU-076/026
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:51:40. **Bukatu**: 00:53:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Gose garaian behin ogia ekarri zieteneko poza gogoan du Matildek. Añorgan fabrikan lan egiten zutenei arroza ematen zieten. Lehen oilaskoa jatea gauza handia zen.

13. Gaztainak jateko eta intxaurrak jolasteko

- **Erref**: USU-076/027
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:53:30. **Bukatu**: 00:55:34

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Gaztainak Gabonetan jaten zituzten. Intxaurrak ostu egiten zituzten. Intxaurrak jolasteko ere erabiltzen zituzten.

14. Larreak San Juan surako

- **Erref**: USU-076/029
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:57:27. **Bukatu**: 01:00:13

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
Larrea nahi baino gehiago egoten zen eta San Juan sua egiteko biltzen zuten. Auzo batekoek bestekoei lapurtu egiten zien larrea; norgehiagoka handia egoten zen Kalexar eta kalekoen artean, nork su handiagoa egingo. Baserritarrak gustura egoten ziren, San Juan suarengatik gazteek eraman egiten baitzizkieten larreak.

15. Usurbilgo lurretan ereiten zena

- **Erref**: USU-076/031
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 01:00:42. **Bukatu**: 01:03:15

Gaia(k):

- Natura » Flora
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Usurbil inguruko zuhaitzak aipatzen dituzte. Sagarrondo asko zegoen lehen Usurbilen. Lur bakoitzean zer landatzen zen azaltzen dute.

16. Enarak eta usoak ugari Usurbilen

- **Erref**: USU-076/033
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 01:05:36. **Bukatu**: 01:06:59

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Natura » Fauna

Laburpena:
Enarei "eneak" deitzen zieten. Habia asko zeuden herrian, eta arazo horrentzako konponbidea topatu zuten. Usoak ere izaten ziren; usoen usaina oso zikina da, eta haren simaurrak indar handia du, ukitzen duena usteltzeko adina.

17. Lehengo mutil koskorrak naturalak ziren

- **Erref**: USU-076/034
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 01:06:59. **Bukatu**: 01:10:29

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Natura » Fauna
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Mutil koskorrak txorien arrautzen bila aritzen ziren lehen. Ume haiek naturalak ziren; gaur egungo umeei buruzko iritzia ematen dute. Orduko bihurrikeriak sanoagoak ziren.

18. Usurbil inguruko txoriak

- **Erref**: USU-076/035
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 01:10:29. **Bukatu**: 01:12:55

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:
Usurbil inguruko txoriei buruz hitz egiten dute: beleak, mikak, izkin-usoak...

19. Kukuak eta zapelatzak

- **Erref**: USU-076/036
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 01:12:55. **Bukatu**: 01:14:49

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:
Kukuei buruz hitz egiten dute: kukuaren portaera, hari buruzko sinesmenak... Zapelatzak maiz izaten ziren inguruan; kasu horietan, hegaztiak barrura sartzen zituzten, zapelatzak eraman ez zitzan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com